



INTERNATIONAL
CO-OPERATIVE
ALLIANCE

Route des Morillons 15
1218 Grand-Saconnex
Geneva
Switzerland

Tel: (41 22) 929 88 88
Fax: (41 22) 798 41 22
E-mail: ica@ica.coop
Website: www.ica.coop

ICAKo Kooperatiben 85. Nazioarteko Eguna Nazio Batuetako Kooperatiben 13. Nazioarteko Eguna

2007ko uztailaren 7a

Uztailaren 7an ospatuko den Kooperatiben Nazioarteko Egunak aurten “Enpresen Gizarte Erantzunkizunerako Balio eta Oinarri Kooperatiboak” gaia izango du ardatz. Kooperatibistek munduan zehar, hiritar arduratsu gisa, Kooperatibetan egin duten eta egiten jarraitzen duten ekarpena ospatuko da.

EGE-ak negozioen munduak, jokabide eta txosten garden eta osoekin, gizartea hobetzen lagun dezakeela erakutsi nahi du indar osoz; bazkideen konpromezuarekin, berrikuntzarekin eta gobernantzarekin. EGE-ak unibertsalki onartutako definiziorik ez badu ere, adostasun orokorra dago esatean bere baitan hartzen dituela betebeharrak legaletatik harago doazen borondatezko ekintzak, honako alorretan: garapen komunitarioa; ingurugiroaren babesa; giza eta lan eskubideak.

Kooperatibentzako EGE-a ez da aurkikuntza berria. Beren hastapenetatik, Kooperatibek argi izan dute bere ekintzek bere kideen gehiengoan, komunitatean eta inguruan eragina daukatela. Hainbat modu eta bidetatik, mugimendu kooperatiboa EGE-aren garapen eta praktikan aitzindaria izan da.

Bere kideak oinarri dituen egitura demokratikoa dela-eta, Kooperatibek irabazi finantziarioetatik harago begiratu izan dute beti. Duela 150 urte baino gehiagotik balioak eta oinarriak eredu kooperatiboaren bihotzean egon dira beti. Kooperatibismoaren berariazko balioek barne hartzen dute: autolaguntza, autoerantzunkizuna, demokrazia, berdintasuna, ekitatea eta elkartasuna. Fundatzaileen tradizioaren arabera, kooperatibismoak zintzotasuna, argitasuna, gizarte erantzunkizuna eta besteen zaintzaren balio etikoetan sinisten du. Balio hauek EGE-aren egiazko edozein konpromezuren zutoinak dira eta izango dira.

Gizarte erantzunkizunarekin serio konprometitzen diren enpresen balioaren ezagutza geroz eta zabalagoak, mota guztietako enpresek kooperatiben berezko kontzeptu hau bere egin dezatela ekarri du, beren ekintzen berri emanez eta politika konkretuak ezarriz. Hala ere, Kooperatibeetan geroz eta nabariagoa da EGE-a bere negozioen eguneroko bizitzan dagoela. Adibide ugari dago, tartean, hauek:

- Mondragón Corporación Cooperativa, Euskal Herrian, munduan den lan kooperatibarik handiena, non kide guztiek bere antolakuntza eta irabazietan parte hartzen duten. Honek gizarteari onura nabariak ekarri dizkio, enpleguen sorreraren, segurtasun sozialen, aukeren eta komunitatearen indartzearen bitartez. Balio eta oinarri kooperatiboak dinamismoa eta berrikuntzarekin lerratuta daude, Korporazioaren handitzea eta ematen diren aldaketak jasatea posible eginez.

- Co-operative Group, Erresuma Batuan, Britainia Handiko marka fidagarriena izateagatik da ezaguna. Co-operative Group-en indarrak 5 norabidetan bideratu dira: aldaketa klimatikoa; gizarteratzea; delinkuentzia eragozteak; jakien kalitatea eta kooperazio modernoa. Jabegoa eta gobernua bere kideen eskuetan dagoela, Co-operative Group-ek 7,2 milioi libera esterlina baino gehiago, bere mozkin gordinaren %2,8a, bere lan-eremuaren inguruko komunitateari dohaintzan eman dizkio. Co-operative Groupen parte hartze zuzenarekin, beste 3,6 milioi gehiago izan ziren komunitate honetako erakundeek bildutako dirua.
- Equidad Seguros, Colombian, bere bizitzak dituen 36 urtetan herritar behartuenei, soldata txikiak dituztenei, babeserako segurua eskaintzeagatik eta gizarte ongizateari egindako ekarpenagatik, enpresa eredu solidarioa burututa eta kontseilari arduratsuak hezitzen, nabarmendu da. Honetaz gain, hainbat kanpaina burutu dituzte kooperatibismoan lider gazteak bilatu, genero gaiak, artea, kultura eta kirolak sustatzeko eta enpresa kooperatiboaren garapena beste sektoretan dinamizatzeko. Bere lorpenak aintzatetsiz, “Asociación Americana de Cooperativas y Sociedades Mutuales de Seguros”-ek (AAC/SMS) 2006an EGE-aren lehenengo saria eman zio Equidad Seguros-i.
- Amul (Bujarat-eko esne Kooperatiben Federazioa) Indian, herrialde honetako janari ekoizle handiena da eta ekarpen handia egin du kultura kooperatiboaren hazkunde eta arrakastan, kooperatiba sareen sorreran, merkatu-penetrazioan, ekoizle eta kontsumitzaileenganako errespetuan; halaber, jatorri desberdineko bere kideen gizarteratzean ere ekarpena egin du. Kooperatibetako nekazari eta kideei itzulera ordainduak ematea dute helburutzat. 2001ean Bujarat-en izandako lurrikarak eragindako kalteei aurre egiteko Amur Relief Fundazioak 50 milioi erupia indiar dohaintzan eman zituen, eskolen berreraikuntzarako erabili zirenak.
- Desjardins, Kanadan, bere izaera kooperatiboagatik, erakunde finantzarioa baino gehiago dira. Bere lan eremuan dauden komunitateen garapen ekonomiko eta sozialaren parte aktiboa dira. 2005ean, Desjardins-ek 58 milioi kanadiar dolar banatu zituen bere kideen artean, dirulaguntza gisa. Zenbateko hau bere superabitaren %42,8a da, eta babesletza-ekintzak, laguntzak, dohaintzak eta ikasketa beketarako bideratu zen. Bestalde, Desjardins Venture Capital-ek (DVC) 150 milioi inbertitu zituen Quebeceko 143 negozio eta kooperatiben finantziazioan.

Beste hainbat Kooperatibek ere bere ekintzak bideratzeko politika konkretuak dituzte, haurren lanean bezalako gaietan inplikaturik, bere langile zein bere hornitzaileen langileen lan baldintza duinen alde eginez, bere enpresa eta banakoetan ingurugiroarekiko jarrera arduratsuak sustatuz edo beste ekinbide ugariarekin.

ICA-k Munduko kooperatibistei dei egiten die, Kooperatibismoaren Nazioarteko Egun honen kariatara, mugimendu kooperatibista enpresen gizarte erantzunkizunean lider egin duen formularen arrakasta ospatu eta erreibindikatzera; eta bide batez, bere ekinbideak agerikoago bihurtzen.